





# EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAK INTENTZIO POLITIKO ARGIA DU



Emakumeak gatazka politiko eta armatuetan duen egitekoaz jardun du hainbat ikerketatan, erbesteetan batez ere, genero perspektiba erabiliz beti. Ikertua du emakumeak, gatazkan ez ezik, gatazka ondoko baketze prozesuan ere jokatzeko duen rola. Emakumeen memoria historikoa berreskuratzeko lanean beti Irantzu Mendia Azkue.

 MIEL A. ELUSTONDO  DANI BLANCO

**Zein ekarpen egin dezakete kanpoan aztertu dituzun gatazkek gure egoeran? Dela emakumearen egoeraren ikuspegitik, dela politikotik oro har.**

Gatazka bakoitza bere testuinguruan aztertu behar da. Zeinek bere berezko historia, subjektu eta dinamikak ditu. Testuinguruak beti mugatuko ditu gatazka bakoitzaren zenbait partikularitate. Hala ere, niri azterketak begirada konparatibo batetik abiatzea interesatzen zait. Horren bidez bakarrik ohartu ahal gara ager daitezkeen antzekotasun eta diferentziaz, eta esperientzia ezberdinetatik ikasi. Ez dut uste, beraz, gatazka

bakoitza “bakarra eta aldera ezina” denik. Emakumeen bizi-esperientziei dagokionez, ohikoa izaten da ikustea indarkeriak espezifikotasun batzuk hartzen dituela, edonon, generoak zeharkatuta. Sexu indarkeriari dagokionez, batik bat. Gatazka bortitz guztietan ditugu armak hartzearen aldeko hautua egiten duten emakumeak, eta baita hasieratik bertatik bakegintzaren alde kokatzen direnak ere. Nik ekarpen garrantzitsu gisa azpimarratuko nuke herrialde askotan mugimendu feministak egin duen borroka iraunkorra. Gatazken konponketarako espazioetan egoteko aldarri egin du, eta indarkeriak eragindako inpaktuen au-

rrean lan egin du; egia, justizia eta erreparazioaren agendan, esate baterako.

**Hori horrela izan al da Euskal Herriaren kasuan?**

Euskal Herriaren kasuan, ez dut ikusi mugimendu feministak hainbeste protagonismo hartu duenik, subjektu gisa, gatazka politiko eta armatuari loturiko gaietan. Ez modu autonomoan, ez bestelako gizarte mugimenduekin aliantzak eraikiz ere. Gurean, historikoki, gatazkaren kudeaketari dagokionez, pisu edo zer esan gehiena alderdi politikoek eta instituzioek izan dute, eta ez hainbeste eragile sozialek.

# Irantzu Mendia Azkue

GASTEIZ, 1976



EHUko Soziologia eta Gizarte Langintza Saileko irakasle da, eta Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari buruzko Ikasketak Institutuko-Hegoako kide. Hainbat ditu intereseko ikergaiak: gatazka armatuen azterketa feminista, bakea eraikitzea, justizia trantsizionala eta memoria historikoa, besteak beste. Ikuspegi konparatua baliatzen du bere lanean eta El Salvador, Guatemala, Kolonbia eta Mendebaldeko Saharan feminismoak giza eskubideen defentsan eta inpunitatearen kontra gauzatu duen borroka ikertu du. Euskal Herriko Foro Sozial Iraunkorreko Genero Taldeko kide ere bada, eta, bertatik, gure herriko baketze prozesuan emakumeen esku hartzeari ekarpen egiten ari da.



**Emakumezkoen aldarriak aberriaren kontrakoak balira bezala hartzen direla esan zenuen behin ARGIA honetan bertan (2004ko urriaren 24a, 1.963 zbkia.) Horretan al zaude oraindik?**

Baietz esango nuke. Gatazka eta gatazka osteko testuinguruetan oraindik badago joera hori. Emakumezkoen borroka autonomoa –posizionamendu alderdikoi jakin batzuetatik harago kokatzen dena, alegia–, banaketa edo haustura iturri balitz bezala ulertzeko joera. Muturreko kasuetan, aberriaren kontrako “traiziotzat” ere hartu izan da. Batez ere, emakumezkoen aldarrikapenek “norberaren bandoan” kokatu daitezkeen subjektuen indarkeria salatzen dutenean; eta, bereziki, emakumeen kontrako indarkeria salatzean. Muturreko kasuak ez direnetan aldiz, mesfidantzaz edo ulertezintasunez hartzen dira, maiz, emakumeen aldarriak.

**Esate baterako?**

Niri aztergai interesgarria iruditzen zait Kurdistango kasua. Izan ere, han, azken urte hauetan gero eta gehiago ari da hedatzen herri kurduaren askatasunaren aldeko borroka, eta aldarri feministen aldekoa, borroka bat bakarria direla. Kolonbian, aldiz, 2016ko Bake Akordioetan genero ikuspegia txertatzea, eta emakumeen eta LGTBI mugimenduko kideen eskubideen aldeko neurriak hartzea,

mehatzutzat hartu zituzten eskuineko sektore kontserbadoreek. Horiak, esate baterako, generoaren auzia astindu zuten, Bake Akordioari buruzko erreferenduma ezetzak irabaz zezan.

**Gatazkak, oro har, modu berdinean kolpatzen al ditu gizon eta emakumeak?**

Ikerketa feministek agerian utzi dutenez, gatazkek eta, bereziki, indarkeriak, inon ez dituzte berdin kolpatzen gizonak eta emakumeak. Dakigunez, jendartearen antolakuntza patriarkalean, gizonei eta emakumeei dagozkien rolak, identitateak, sinesmenak eta baloreak oso zehaztuta daude. Hain zuen, horrexek eramaten gaitu bizi-baldintza eta gizarte posizio desigualak izatera. Gatazka –gerra, barne–, gizarte fenomeno den heinean, antolakuntza patriarkal horrek berak zeharkatuta dago. Gerrak, gainera, muturreraino eraman behar izaten ditu genero rol tradizionalenak, gerra bera posible egiteko!

**“Gerra bera posible egiteko”. Zer esan nahi duzu?**

Adibidez, jendartearen hedatu behar du indarkeria gauzatzeko oso prest dagoen maskulinitatea. Gainera, emakumeak defendatu beharreko propietatea diren irudi zaharra ere berreskuratu egin behar du. Harreman hierarkizatuak

eta autoritarioak ere legitimatu behar ditu, lidergo militarrek euren boterea tinkotu dezaten. Eta abar... Testuinguru horretan, emakumeen eskubideek atzera egiten dute –etengabe, gainera–, eta emakumeen kontrako indarkeria intentsifikatzeko prozesua gertatzen da. Bestalde, jakina da gatazka politiko eta armatuetan, generoaren arabera-ko indarkeria dela-eta, giza eskubide batzuen urraketek neurrigabe inpakta-tzen dutela emakumeengan. Adibidez, sexu indarkeria, behartutako migra-zioak, eta eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen galera.

### **Uda atariko, ekainaren lehenengoan, justizia feministari buruzko mintegia egin zen Bilbon. Zer esan nahi du “justizia feminista”-k?**

Feminismoak ezinegon handiz bizi du indarrean dagoen justizia eredia. Mendebaldeko herrialdeetan estatu modernoaren sorrerak errota eta sendotu zuen justizia sistemaren ardatza ez da inoiz izan emakumeen eskubi-deak bermatzea. Dakigunez, herritar-tasun eskubideen eraketa historikoan emakumeak alboratuak izan ziren, eta eskusio horren oinordekoa da ezagut-zen dugun justizia sistema. Mentalita-te eta jarrera patriarkalek guztiz mugat-zen duten sistema horretan aldaketak eragiten saiatu dira emakumeak historian zehar, eta, zehazki borroka feministatik bo-rrokatu da emakumea, legegintzan eta justizia-ren gauzatzean eralda-ketak lortzeko. Aurre-rapenak lortu badira ere, gauzak gehienbat bere horretan dira. Emakumearen testigan-tzari ez zaio sinesgarritasunik ematen, emakumea-ren kontrako krimenak ez dira behar bezala hartzen eta ikertzen, biktimak indarkeria instituzionala ere jasan behar izaten du...

### **Hortik Bilboko mintegia, feminismoak justizia ereduari buruzko gogoeta...**

Feminismoak nazioartean eztabaida serio bat abiatu du, eta horrekin batera oraindik definitze prozesuan dagoen “justizia feminista” eredu bat eraiki daitekeen auzia mahai gainean jarri da. Pentsamendu ildo ezberdinak dau-

de horri buruz, eta, ondorioz, justizia gauzatzeko estrategia eta modu ezber-dinak. Adibidez, justizia-sistemak di-tuen joera patriarkalen azterketa aski partekatua bada ere, batzuen ustez sis-tema barrutik apurtzea, edota eralda-tzea, da garrantzizkoena, emakumeen kontrako krimenek duten larritasuna diskurtso eta praktika juridikoan izan beharko luketen lekuan kokatzea –se-xu-indarkerien kasua, adibidez–, litigio estrategikoen bidez aurrerapausoak ematen jarraitzea... Beste batzuen us-tez, berriz, justiziaren bestelako nozio eta praktikak sortu beharko genituzke, non instituzioak ez bailuke hainbeste-ko protagonismoa izango, eta bai, aldiz, komunitateak berak. Horrela, indar-keriaren biktimari arreta egokiagoa emango litzaiokoe –arreta hurbila, zain-tzan oinarritutakoa...–, eta justizia eta erreparazioa oinarri lituzkeen eran-tzukizun kolektiboaren kultura he-datuko litzateke. Ildo honen barruan, badira zigorra, kartzela eta sistema pe-nala bera kolokan jartzen dituzten po-sizio abolizionistak ere.

### **Emakumeak torturatzen dituzte, gerretan bortxatzen, abusuak jasanarazten... Ikusgarritasunik batere ba al du emakume horrek?**

Giza eskubideen urraketa larri horiek azken hamarkadatan ikusgarritasuna irabaziz joan dira, eta hori mugimendu feministari esker izan da, bai azterketa teorikoen ikuspuntutik eta bai praktika politi-koaren ikuspuntutik ere, esfortzu handiak egin direlako. Ho-rretarako, historian zehar eta edonon normaltasunez hartu izan den emakumeen kontrako indarkeria bo-rroka feministaren ardatz bihurtu izana estrategikoa izan da. Indarkeria hori salatzeak eta pa-triarkatuaren tresna nagusi gisa koka-tzeak asko lagundu du horren “desna-turalizatzeko” prozesuan: indarkeria ez da normala, ez da naturala eta inten-tzio politiko argia du.

### **Emakumeak gatazketan jokatu duen rola aztertu duzu han eta hemen. Zer diozu Irun eta Hondarribiko alardeez?**

Aztertu ditudan kasu guztietan armak

## **HAIZE FRESKOA**

“Apurka-apurka hurbildu nintzen genero ikuspegira eta horren era-bilera politikoaren eragile izan den mugimendu feministara. Neu-re testuinguruarekin bat eginez eta kontzientzia handiagoa hartuz joan nintzen heinean gertatu zen hurbiltze hori. Leiho bat ireki zi-tzaidan, feminismoak zabaltzen duen leihoa da. Laster konturatu nintzen hortik datorren haize fres-kotik arnastu nahi nuela”.

## **ALARDEEN BALIOAK**

“Nik, egia esan, ez diot interes handirik ikusten horrelakoak oroitzeari [alardeak, Gasteizko borroka...]. Horiek militarizazioa-ren eta militarismoaren balioak normalizatzea besterik ez dute indartzen. Seguru nago bestelako gertaera historiko askori eman ahal diegula garrantzia, borroka feministarako edo herrien aska-penerako garrantzitsuak izan di-ren gertaerak”.

## **GATAZKAK**

“Gatazken teorian erabiltzen den kontzeptu bat ‘ezin landuzko gataz-kak’ da. Batzuetan, gatazkak iraunkor bihurtzen dira, ‘gatazka ahaztuak’ direlako. Agenda politi-koan edo komunikabideetan ager-tzeari uzten diote –hala tokian nola nazioartean–, gatazka horiek konpontzeko pausoak ematen ez direlako. Irun eta Hondarribiko alardeak ez dira ‘gatazka ahaz-tuak’, baina konpontzeko bitarte-ko politiko guztiak ez dira jartzen, ‘enkistatzen’ utzi dira eta, horrela, iraunkor bihurtu dituzte”.

### *Azken hitza* **EMAKUMEEN ARTEKO EZBERDINTASUNAK**

“Indarkeriak ez ditu emakume guztiak era berean jotzen. Gizar-tearen hierarkizazioak eragiten dituzten faktoreek ere –dela arra-zakeria, klasismoa, kolonialismoa eta abar–, ezberdintasunak sor-tzen dituzte emakumeen artean”.

hartzea erabaki duten emakume borrokalariak egon dira, nahiz eta kopuru aldakorretan. Litekeena da Euskal Herrian izan diren gatazka bortitz orotan ere armak hartu dituzten emakumeak egotea. Alardeen esanahia gerrari loturiko gertaera historiko bati buruz oroimena egitea bada, bertan emakumeak borrokalari gisa agertzea oroitu nahi den errealitatearekin guztiz bat etor daiteke. Baina horrek oraindik gure jendartean emakumeen eta gizonen portaera idealizatu eta estereotipo errotuenak apurtzen ditu, eta, ondorioz, erreakzio matxistak eta kontserbadoreak sorrarazten ditu.

### Eta, orduan, horrelaxe segituko dugu beti eta betiko?

Gasteiztarra naiz, eta han, batzuek, gogo handiz hartu dute urtean behin 1813. urteko Gasteizko Borroka errekreazio Armentiako landetan. Irudiek betikoa erakusten dute: gizon asko soldadu jantzita, fusilak eskuan, oinez edo zaldi gainean... Agertzen diren emakume bakanez zer egiten dute? Fikziozko borroka

horretan zaurituta dauden gizonak sendatu. Askoren begietan horixe da gerrari buruzko iruditeria bakarra!

### Kapitalismoaren eta patriarkatuaren arteko loturak identifikatzen ere egiten duzu lan. Nola egiten da hori?

Kapitalismoa eta patriarkatua elkar elikatzen duten bi esplotazio sistema dira. Biek ere gauza bera inposatzen dute: gizarte antolaketa eredu jakin bat, non pertsonak eta herriak gutxiengo baten kapitalaren akumulaziorako beharrezkoak diren posizioetan kokatzen baitituzte. Kapitalismoak, bere fase historiko guztietan, indarkeria erabili behar izan du bizirauteko, esplotazio sistema guztien aurrean erresistentziak garatzen direlako, logikoa denez. Bere aldetik, patriarkatuak lan itzela egin du indarkeriaren erabileraren legitimazioari dagokionean. Lehiakortasuna goraiatuz, adibidez: "Indartsuenaren legea"-ren ideia finkatu du, norbanakoen eta kolektiboen arteko harreman hierarkizatu eta injustuak normalizatu ditu, helburu ekonomikoak eta militarrek bateratu ditu.

### Harreman injustuak gizon-emakumeen artean, esan nahi duzu?

Bai, nahiz eta ez bakarrik. Hala kapitalismoak nola patriarkatuak, biek ere inpaktu oso negatiboak dituzte gizonetzko zein emakumezkoengan, baina inpaktu horiek desigualak dira, gizartean gizonaren bizitzari, eta maskulinitate jakin bati, balio handiagoa ematen zaiolako. Horregatik, pobreen eta prekarizatuaren artean emakumeak dira pobreenak eta prekarizatuak, eta, era berean, horregatik, emakumeen aurkako indarkeriak, gizarte estratu edo klase guztietan ere, konstante bat izaten jarraitzen du. Horri, gainera, historikoa den beste esplotazio sistema bat gehitu behar diogu, hau da, kolonialismoa. Izan ere, kolonialismoa, patriarkatua bezala, kapitalaren akumulazioaren mesederako eraikia izan den sistema bortitza da: Mendebaldeko herrialdeen mugetatik harago zapalkuntza besterik ez du eragiten. ●



Gipuzkoako  
Bertsolari Txapelketa  
2019

Irailak  
**14** 17:00  
Oñati. Santa Ana Antzokia

Felix Zubia Olaskoaga  
Aratz Igartzabal Bidegain  
Haritz Mujika Lasa  
Andoni Mujika Izagirre  
Amaia Iturriotz Etxaniz  
Maider Arregi Markuleta  
Aurkezlea: Ibai Narbaiza Cevidades




Irailak  
**15** 17:00  
Amasa-Villabona. Gurea Antzokia

Beñat Iguaran Amondarain  
Oier Etxeberria Zubimendi  
Iban Urdangarin Lardizabal  
Iñigo Mantzidor Larrañaga  
Odei Lopez Larrauri  
Maialen Akizu Bidegain  
Aurkezlea: Erestí Oiarbide Murua




Antolatzailea  


[www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus)

Laguntzailea  
